

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2017ko 1. hiruhilekoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA EKONOMIA  
SAILA  
*Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA  
*Dirección de Economía y Planificación*



## LABURPENA

2017ko hastapenean, EAEko ekonomiak berriro erakutsi zuen sendotasun garrantzitsu bat hazkunde erritmoan, %2,8ko urte arteko tasa jasota, aurreko emaitza baino hamarren bakar bat gutxiago delarik. Zenbaki horrek gutxienez bi irakurketa kontrajarri eskaintzen ditu oraingo ekonomia egoeraz. Alde batetik, laugarren hiruhilekoz jarraian EAEko barne produktu gordina gutxiago hazi da, 2016ko lehen hiruhilekoan lortutako maximoaren ondoren. Beste aldetik, moteltze hor aurreikusitakoa baino leunagoa izaten ari da eta horrek pentsarazten du gaur egun ekonomiak aurreko motelaldietan baino inertzia handiagoa erakusten duela. Inertzia horren oinarrian bi arrazoi egon daitezke: enpleguak hobeto erantzuten dio BPGaren hazkundeari eta inportazioek elastikotasun txikiagoa dute barne eskariaren aldakuntzen aurrean. Ingurunearekin alderatuta, EAEko ekonomiak bizitasun handiagoa dauka Europar Batasunak (%2,1) eta Euroguneak (%1,9) baino.

Hazkundearen osaera eskariaren ikuspegitik barne eskariaren bultzada sendoan oinarritzen da, kanpo saldoaren egoerak nolabaiteko oreka erakusten duen bitartean. Izan ere, 2017ko lehen hiruhilekoan, inportazioak esportazioak baino zertxobait gehiago hazi ziren eta kanpo saldoaren ekarpen negatiboa bi hamarren ingurukoa izan zen. Emaitza apal horrek ez du desorekarik iradokitzen etorkizuneko hazkunderan.

Barne eskaria %2,9 areagotu zen aurtengo lehen hiruhilekoan, bi osagai nagusiek, hots, azken kontsumoak eta kapital eraketa gordinak, tamaina horretako aldakuntzak jaso zituztela. Kontsumoaren barnean, familien kontsumoaren bultzada (%3,0) nabarmendu zen, BPGaren aldakuntza gutxigatik gainditu baitzuen, nahiz eta azken hiruhilekoetan egonkortasuneko irudia eskaini duen. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoak %2,5eko urte arteko gorakada eskuratu zuen, aurreko hiruhilekokoa baino puntu erdi bat gutxiago. Halere, aldagai horretan ohikoak izaten dira gorabehera handiak.

Kapital eraketa gordinak (%2,9) moteltzeko joera garbia islatu zuen bere hazkunde erritmoan eta hainbat hamarren galdu zituen aurreko datuaren aldean. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak ahitzeko zantzuak erakutsi ditu, 2016ko hasieran bi zenbakiko gehikuntzak lortu ondoren, hiruhilekoak aurrera zihoazen heinean moteldu zirenak eta gaur egun %4,9an kokatu dena, oraindik nabarmena den arren. Zaharkituta zeuden ekipamenduak ordezkatzeko beharra neurri batean gauzatu da une hauetan eta, beraz, aldagaiaren hazkundera instalazioak handitzeko beharretik iritsiko da neurri handiagoan. Beste aldetik, gainontzeko inbertsioak, eraikuntzari oso lotuta baitago, hainbat hamarrenetan hobetu zituen aurreko emaitzak, baina oraindik balio apaletan dago (%1,9).

Sektoreen analisiak berrikuntzaren bat eskaini du bi arlo nagusiek azken urteetan erakutsia zuten orekari dagokionez. Hain zuzen ere, aurtengo lehen hilekoetan industriak bizitasuna galdu zuen eta 2016ko amaieran eskuratu zuen %3,0tik oraingo %2,0ra igaro da. Hala ere, badaude argudio batzuk pentsatzeko apaltze horren atzean enpresa handi batzuen gertakari zehatz batzuk daudela eta horiek atzean geratu direla. Beste aldetik, eraikuntzak bere hazkunde erritmoa finkatu zuen %2,1era arte, aurreko datuak baino bi hamarren gorago dagoela.

Zerbitzuek ez zuten bat egin industriaren moteltzearekin eta aurreko bi hiruhilekoetako datua berdindu zuten (%3,1), sektorea osatzen duten atal guztiek egonkortasun handia erakutsi zuten bitartean. Esate baterako, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak %3,7 handitu zuen bere balio erantsia, 2016an lortu zuen hazkundearen antzeko datua baita. Administrazio publikoari lotuago daudenak, berriz, %2,6 hazi ziren, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek %3,0ko tasa lortu zuten, aurreko bi hiruhilekoetakoak berdinduz.

BPGa 2017ko lehen hiruhilekoan zertxobait moteldu bazen ere, enpleguak aurreko emaitza hobetu zuen, urte arteko tasa %2,0an kokatu arte. Tasa hori 2007ko amaieratik lortu den altuena da. Horrek adierazten du azken urtebetean lanaldi osoko 17.800 lanpostu baliokide inguru sortu direla eta EAEko ekonomian dauden lanpostuen kopuruak berriro gainditu duela 910.000 lagunengana, bost urte beranduago. BPGaren eta enpleguaren bilakaerak lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia %0,8an utzi zuen, azken urteetako datuekin alderatuta balio apala delarik, horiek guztiak %1,1aren gainera zeudelako.

Oro har, prezioek goranzko joerari eutsi zioten aurtengo lehen hilekoetan. Izan ere, BPGaren deflatoarea %0,8an kokatu zen lehen hiruhilekoan eta KPIak %2,7ko tasa jaso zuen, petrolioaren garestitzeak baldintzatuta. Hala ere, azken faktore hori zuzentzen ari da azken aldian eta aldakuntza tasak Europako Banku Zentralaren helburutik (KPIa %2,0aren apur bat azpitik kokatzea) hurbilago egongo direla espero da.


Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspen eguneratuek %2,7ra igo dute BPGaren hazkunde zenbatespena 2017rako eta %2,3ra, berriz, datorren urterakoa. Beraz, bi hamarren eta hamarren baten goranzko zuzenketa egin da, hurrenez hurren. Aurreikuspenaren aldakuntzan dauden arrazoiak hauek dira: espainiar ekonomiaren bultzada handiagoa, EAEko ekonomiaren merkatu nagusia baita, eta herrialde garatuetan bizi den baikortasun neurtua, EAEk atzerrira bidaltzen dituen esportazio guztien %80 herrialde horietara baitoaz. Ingurunean oraindik EAEko jardueraren bizitasuna kaltetu dezaketen ziurgabetasun handiak (Brexit, Txina, AEB, eta abar) egon arren, oro har oraingo arriskuak duela hileko batzuk zeudenak baino txikiagoak direla pentsatzen da.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


Munduko hazkundeak hobera egin zuen iazko bigarren seihilekoan eta joera horrek jarraipena izan du 2017ko lehen hilekoetan ere. Hain zuzen ere, lehen zenbatespenen arabera, munduko BPGa %3,4 hazi zen 2017ko lehen hiruhilekoan, hots, 2016ko laugarren laurdenean baino hamarren bat gehiago. Bultzada horretan, ekonomia aurreratuen egonkortasunak eta azaleratzen ari direnen hobekuntzak parte hartu zuten. Halaber, munduko inflazioak normaltzera egin zuen eta munduko merkataritzak 2016ko amaieran hasitako bizitasuna finkatu zuen.

### Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



India



Iturria: Eurostat eta ELGE.

ELGEko herrialdeak, oro har, %2,0 hazi ziren, 2016ko amaieran izan zuten erritmoa berdinduz. Zehazkiago, AEBetan ekonomia jarduerak egoera sendoa (%2,0) erakutsi zuen berriro eta Japoniak bizitasuna apaldu zuen aurreko jarduera mailaren aldean. Europar Batasunean ere hazkundea finkatu zen, ziurgabetasun handia egon arren. Hainbat urtez hazkunde motela eta tamaina ezberdinekoa jaso eta gero, zikloaren susperraldia ekonomia gehienetan gauzatu zen. Azaleratzen ari diren Asiako ekonomien artean, Txinak bere hazkundea bizkortu zuen eta Indiak, berriz, ahuldu, berriki ezarri den desmonetizazio politikarengatik. Lehengaiak esportatzen dituzten herrialde nagusiek urratsak eman zituzten atzeraldi sakonetik irteteko. Brasilek %-0,4ra murriztu zuen jaitsiera eta Errusiak susperraldia sendotu zuen BPGaren %1,0ko hazkunde batekin. Mexikok ere aurreikusita baino gehiago hazi zen, %2,5, baina oraindik ezin da jakin zer eragin izango duen herrialde horretan estatubatuar politika berriak (immigrazio politika eta NAFTAren berrikusketa).

Txinan adierazle nagusiek espero zena baino portaera hobea izan zuten eta bertako ekonomiak garapen egonkor eta sendoari eutsi zion aurtengo lehen hilekoetan. Hain zuzen ere, Txinako BPGa %6,9 hazi zen. Beraz, Asiako potentzia ekonomiko nagusiak bigarren hiruhilekoz jarraian bizkortu du erritmoa, 2016ko urritik abendura BPGa %6,8 areagotu ondoren, iazko gainontzeko hiruhilekoetan baino hamarren gehiago hazita. Kapital eraketa gordina sendo areagotu zen, hala pribatua (%7,7, kreditu merkeak eta zerga beherapenek lagunduta) nola publikoa (%13,6). Esportazioak %24,1 handitu ziren eta atzean utzi zituzten bi urteko etengabeko beherakadak. Horrek kanpo saldoari bide eman zion jarduera ekonomikoari hamarren batzuk ekartzeko. Bizkortzeko joera berri horrek baikortasunerako gonbitea izan arren, Txinako gobernuak eta adituek ez dute uste bizkortzeko aldiak askoz gehiago iraungo duenik aurtengo eta ez dute aurreikusten %6,5etik gorako hazkunderik 2017 osorako. Inflazioak, berriz, maila apaletan jarraitu zuen eta apirilean %1,2an kokatu zen.

AEBetan, BPGak 2017ko lehen hilekoetan erakutsi zuen bilakaerak 2016ko bigarren erdian hasi zuen goranzko norabide berria egiaztatu zuen. Kontsumo pribatua ekonomiaren bultzagile nagusia izan zen berriro, kreditua lortzeko baldintza egokiek eta lan merkatuaren egoera onak, enplegu osoko egoera dagoelako, lagunduta. Hain zuzen ere, langabezia tasa %4,3ra jaitsi zen maiatzean, azken hamasei urteko mailarik txikiena baita. Halaber, lehenengo aldiz 2014ko amaieratik, inbertsio pribatuaren osagai guztiek ekarpena egin zioten ekonomiaren hedapenari eta kontsumo zein inbertsio publikoaren jaitsiera konpentsatu zuten. Baita kanpo eskariarena ere, jarduerari hamarren bat kendu ziolako. Aurrekoaren ondorioz, bertako BPGa %2,0 areagotu zen, aurreko hiruhilekoan beste. Azkenik, prezioek beheranzko norabide leunari eutsi zioten eta apirilean %2,2an kokatu ziren.

Japonian, ekonomia jarduerak erritmoa galdu zuen eta %1,3 hazi zen lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Hazkundea esportazioen sendotasunean eta

inbertsioaren egonkortasunean oinarritu zen bereziki, kontsumoaren bilakaera txarra konpentsatu zutelako. Zehazkiago adierazita, kontsumo publikoa %1,0 murriztu zen eta pribatua, Japoniako BPGaren %60 inguru biltzen baitu, aldaketarik gabe geratu zen. Barne kontsumoa sustatzeko japoniar gobernuak sustatu zituen soldata igoerek oraingoz ez dute eman lortu nahi zen emaitza, baina prezioentzat lagungarria izan da, aurtengo lehen lau hilekoetan eremu positiboan egon direlako. Langabezia tasa %2,8an dago otsailetik, 1994tik inoiz izan duen tasarik txikiena delarik. Emaitza horiek onak diren arren, japoniar ekonomiak egiturazko ahultasunak erakusten ditu oraindik eta horrek zalantzan jartzen du hazkundearen etorkizuneko sendotasuna.

Europako Banku Zentralaren (EBZ) politikaren jarduera oso egokitzailak ekonomia errealera igarotzen jarraitu zuen eta Eurogunea %1,9 hazi zen, aurreko sei hilekoetako baino zertxobait biziagoa zen erritmo batean. Susperraldiaren mailakako sendotzea eremuko herrialde guztietara hedatu zen, baina intentsitate ezberdinean. Hazkunde tasen muturrak Esloveniaren %5,0 eta Greziaren %0,4 izan ziren. Analisia ekonomia nagusietan fokatuta, Alemanian kanpo arloaren sendotasunak barne eskariaren nolabaiteko ahultzea, bereziki kontsumo pribatuarena, konpentsatu zuen eta bertako BPGa %1,7 areagotu zen. Aitzitik, Frantzia barne eskariak hazkundera bultzatu zuen, batez ere inbertsioak, zeren eta kanpo arloaren ekarpena hutsala izan baitzen. Eurogunetik kanpo, Erresuma Batuan ekonomia jarduerak iraupeneko ahalmen harrigarria erakutsi zuen, Europar Batasunetik irteteko erreferendumaren emaitzak sortu zuen ziurgabetasuna kontuan hartuta. Hain zuzen ere, %2,0 hazi zen, 2016ko azken hilekoetan baino hamarren bat gehiago. Inbertsio biziberrituen bultzada garrantzitsuak eta kontsumo pribatuaren sendotasunak (1,3 puntu ekarri zizkion jarduerari) hazkundera azaltzen dute.

Euroguneko langabezia tasa %9,3ra jaitsi zen apirilean, 2009ko apiriletik inoiz jaso den mailarik txikiena baita eta duela urtebete bat zegoena baino bederatzita hamarren apalagoa, Eurostatek eskaini dituen datuen arabera. Erakunde horrek berriro kokatu du Espainia (%17,8) bigarren tokian, Greziaren ondoren (%23,2 otsailean), eremu osoan zenbaki okerrena duten herrialdeen artean. Prezioei dagokienez, maiatzeko inflazioa %1,4an kokatu zen. Apirileko datuaren aldean puntu erdi bat murriztu da KPIa eta horrek EBZk ezarri zuen %2,0ko helburutik urrun kokatu du berriro. KPIaren jaitsierak zalantzak piztu ditu jarraitu beharreko estrategiaz, erakundeak inflazio iraunkorra nahi duelako, Euroguneko herrialde guztietan antzekoa dena eta pizgarriak kenduta ere mantenduko dena. Beraz, moneta politika aldatzeko baldintzak ez dira betetzen.

Euroguneko ekonomia nagusien artean, Espainiak lideratu zuen hazkundera berriro. Zehatz-mehatz, Espainiako BPGa %3,0 hazi zen, aurreko hiruhilekoan beste, eta ez zuen moteltzeko zantzurik erakutsi. Ekonomia jardueraren gehikuntza 2017ko lehen hilekoetan, batez ere, barne eskarian oinarritu zen, 2,2 puntuko ekarpena egin zuelako, aurreko hiruhilekoan beste. Agregatu horren bizitasun garrantzitsua inbertsioaren bizkortzeak eta kontsumo pribatuaren



egonkortasunak eragin zuten, kontsumo pribatuaren geldotasuna konpentsatu zutelako. Beste aldetik, kanpo eskariak zortzi hamarreneko ekarpenari eutsi zion berriro, nazioarteko merkataritza suspertzen ari den testuinguru batean.

Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiek gehikuntza tasa positiboak eskuratu zituzten. Eraikuntzak lortu zuen bizitasun handiena eta zerbitzuek bakarrik moteldu zuten erritmoa. Bizitasun galera begi bistakoa izan zen zerbitzuen adar guztietan, bereziki finantza eta aseguru jardueretan, beherakada handitu zutelako. Dena dela, sektorearen hazkundera nabarmena izan zen (%2,8). Joera bera hauteman zen lan merkaturan, non ia adar guztiek enplegua sortu baitzuten. Salbuespena finantza eta aseguru jarduerak izan ziren, aurreko hilekoetako hobekuntza finkatu beharrean, berriro lanpostuak galdu zituztelako. Halere, enplegua %2,5 hazi zen eta lanaldi osoko 435.000 lanpostu baliokide sortu ziren. Azkenik, prezioek bizkortze bizia pairatu zuten urtarrilean eta otsailean, energia alorreko garestitzeak baldintzatuta. Martxoan eta apirilean joera hori egonkortu zen eta maiatzean KPIa %1,9an kokatu zen.

## ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	I
Azken kontsumoko gastua	2,6	2,6	3,1	2,7	2,4	2,2	1,9
- Familien gastua	2,8	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0	2,5
- Administrazioaren gastua	2,0	0,8	1,7	0,7	0,8	0,0	0,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	3,1	4,3	3,4	2,6	2,2	3,8
- Aktibo finko materialak	6,5	3,1	4,4	3,4	2,7	2,2	3,8
- Eraikuntzan	4,9	1,9	2,3	1,8	1,6	1,9	3,0
- Ekipamendurako ondasunetan	8,8	5,0	7,4	5,7	4,2	2,6	4,9
- Jabetza intelektualeko produktuak	3,6	2,9	4,0	3,2	2,0	2,4	4,2
Nazio eskaria (*)	3,3	2,8	3,5	2,9	2,5	2,2	2,2
Esportazioak	4,9	4,4	3,8	6,5	2,9	4,4	8,4
Inportazioak	5,6	3,3	4,5	5,4	1,0	2,3	6,4
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>3,2</b>	<b>3,2</b>	<b>3,4</b>	<b>3,4</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>
Nekazaritza eta arrantza	-2,9	3,4	5,0	2,7	3,1	2,9	4,0
Industria	5,5	2,4	2,7	2,8	1,7	2,2	2,8
Eraikuntza	0,2	2,5	2,1	2,0	2,9	3,0	4,4
Zerbitzuak	2,6	3,4	3,4	3,6	3,4	3,1	2,8
Produktuen gaineko zerga garbiak	6,7	4,2	4,8	4,3	4,2	3,6	3,9
<b>GOGORATZEKOAK</b>							
- Kontsumoko prezioen indizea	-0,5	-0,2	-0,7	-0,9	-0,2	1,0	2,7
- Enplegua (**)	3,0	2,9	3,1	2,7	2,9	2,7	2,5

Oinarri urtea: 2010. (\*) BPGaren hazkunderari eginiko ekarpena. (\*\*) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estadistika Erakundea (INE).



## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

2017ko hastapenean, EAEko ekonomiak %2,8 handitu zuen BPGa urte arteko tasan, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. Horri esker, 2016ko lehen hiruhilekoan hasi zen moteltzeko joera denboran luzatu da. Hala ere, erritmo galera hori oso leuna izaten ari da eta, edozein modutan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurreikusi zuena baino txikiagoa. Horrek agerian uzten du ekonomia inertzia garrantzitsua erakusten ari dela, bi faktoretan oinarrituta: batetik, barne eskariaren hazkundearen aurrean, inportazioen elastikotasuna aldatu da; bestetik, enpleguaren bilakaera oso positiboa da eta barne kontsumoa gorarazten du. Orobat, espainiar ekonomiaren sendotasuna nabarmendu behar da, gehikuntza erritmoari eutsi ziolako, EAEko enpresen garapenari lagunduz. Halaber, Europako testuingurua nahiko egonkorra da eta herrialde batzuetako hauteskunde prozesuek eragin zituzten zalantzak uxatzen hasi dira.

#### ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	I
<b>BPG erreala</b>	<b>2,9</b>	<b>3,1</b>	<b>3,3</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>2,9</b>	<b>2,8</b>
Nekazaritza eta arrantza	13,4	1,6	11,6	2,8	-0,7	-7,3	2,6
Industria eta energia	3,9	3,3	4,8	2,4	2,9	3,0	2,0
- Manufakturen industria	4,7	3,5	4,7	2,6	3,1	3,3	2,0
Eraikuntza	0,5	1,6	-0,3	2,7	1,9	1,9	2,1
Zerbitzuak	2,9	3,2	3,0	3,4	3,1	3,1	3,1
- Merkataritza, ostalaritza eta	4,5	3,6	3,1	3,9	3,7	3,5	3,7
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,5	2,4	2,2	2,4	2,4	2,7	2,6
- Gainontzeko zerbitzuak	2,0	3,3	3,4	3,6	3,0	3,0	3,0
Balio erantsi gordina	3,1	3,1	3,3	3,1	3,0	2,9	2,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,1	3,1	3,2	3,2	2,9	3,1	3,0

Iturria: Eustat.

Sektoreen analisiak eraikuntzaren susperraldia baieztatzen du, dagoeneko lau hiruhileko kateatu dituelako balio erantsia nabarmen handituz. Izan ere, krisian zehar jaso ziren etengabeko beherakadak atzean geratu dira eta arlo horrek gaur egun gehikuntza tasa

neurritsuko profila erakusten du, balio erantsi osoaren batez bestekoaren azpian dauden arren. Horrek iradokitzen du sektorean ez dela beste burbuila bat sortzen ari. Eraikuntza osatzen duten bi ataletatik, eraikinena da dinamikoena, obra zibilarena oraindik suspertu gabe dagoen bitartean. Hain zuzen ere, Eustatek osatzen duen eraikuntzaren koiuntura indizearen datuek adierazten dute aurtengo lehen hiruhilekoan sektoreak %8,2ko gehikuntza tasa lortu zuela, termino nominaletan eta eraikinen atalak %11,6ko gorakada eskuratu zuela, obra zibilak %14,5eko beherakada pairatu zuen bitartean.

## JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016		2017		
			III	IV	I	Apirila	Maiatza
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	3,5	2,3	1,1	3,5	2,4	2,6	---
Industria giroaren indizea	-3,9	-4,8	-9,5	-7,6	-4,2	-6,2	-1,0
Ekoiizteko ahalmen. erabilera (%)	79,7	81,1	82,6	80,7	75,0	80,6	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,3	1,7	2,0	2,1	2,0	1,7	1,8
<b>Eraikuntza</b>							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-0,1	2,1	2,9	1,9	8,2	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	45,5	-13,4	-13,3	-45,8	-5,7	---	---
Etxebizitzen salerosketak	21,1	11,6	-1,3	2,6	7,1	-9,9	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,5	0,0	-0,3	0,5	1,8	1,7	1,6
<b>Zerbitzuak</b>							
Hegazkinen bidezko trafikoa	6,5	7,6	4,8	7,5	5,2	15,2	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	8,2	8,9	6,9	6,6	1,9	22,6	---
Hoteletako okupazioa	49,8	53,0	71,3	47,2	38,8	55,9	---
Negozio zifren indizea	4,3	4,6	3,8	4,6	5,5	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	2,5	2,9	1,8	1,3	1,9	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,8	2,2	1,9	2,1	2,1	2,4	2,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Sektore handiei dagokienez, industriak eta zerbitzuek erakutsi zuten oreka bertan behera geratu da denboraldi batez 2017ko hastapenean. Hain zuzen ere, industriaren balio erantsiak nabarmen moteldu zuen erritmoa, 2016ko bigarren erdian lortutako %3,0tik aurtengo lehen hiruhilekoko %2,0ra. Printzipioz, eskura dagoen sektorearen informazioak pentsarazten du moteltze horren oinarrian enpresa batzuetako gertakari jakin batzuk daudela, bigarren

hiruhilekoan jarraipenik izango ez dutenak. Horren ondorioz, bigarren hiruhilekoan lehenengoan baino bizitasun handiagoa aurreikusten da sektore horretan.

Hain zuzen ere, dagoeneko argitaratu diren industria produkzioaren indizearen (IPI) datuek industria aurtengo bigarren hiruhilekoan bizkortzen ari delako ideia baieztatzen du, erritmo neurritsuan gauzatzen ari den arren. Zehatz-mehatz, apirilko IPIa %2,6 handitu zen, lehen hiruhilekoan %2,4ko gehikuntza izan zuen bitartean. Lehen hiruhilekoan bizi zen moteltzearen arrazoari nagusietako bat energia alorreko ondasunen ekoizpenak izan zuen jaitsiera da, Petronor enpresak, lantegian hobekuntzak egiteko, urtarrilaren erdian eta otsail osoan egin zuen geldialdiaren ondorioz. Horrek energia atalaren aldakuntza tasa %-1,3ra eraman zuen hiruhilekoan, baina apirilean urte arteko tasa balio positiboetara (%1,1) itzuli zen.

IPI indizea osatzen duten gainontzeko taldeen artean, nolabaiteko ahultasuna hauteman zen ekipamendurako ondasunen ekoizpenean, azken urteetan gehikuntza tasa handienak jaso baititu, baina 2017ko hilekoetan gehikuntza apalak eta jaitsiera txikiak tartekatu ditu. Hain zuzen ere, apirilko datua %-1,2 izan zen. Txanponaren ifrentzua kontsumoko eta bitarteko ondasunek eskaini zuten, biek aldeko bilakaerak eskuratuta. Izan ere, bitarteko ondasunek %4,8ko hazkunde garrantzitsua eskuratu zuten lehen hiruhilekoan, apirilean %5,6ra areagotu zutena. Kontsumoko ondasunen ekoizpenari dagozkion zenbakiak, berriz, %2,7 eta %6,4 dira, hurrenez hurren. Oso ezberdinak dira ondasun iragankorren ahultasuna, jaitsiera txikiak jaso baitzituen, eta ondasun iraunkorren bizitasuna, lehen hiruhilekoan %11,7 eta apirilean %26,0 hazi zirelako.

Sektorean diharduten enpresen iritziek nolabaiteko baikortasuna erakusten dute aurtengo lehen hilekoetan. Esate baterako, industria giroaren indizeak, Energia Ministerioak biltzen dituen datuekin egiten baita, 2016ko bigarren erdian zegoena baino egoera hobea seinalatzen du orain. Konfiantzaren susperraldia apirilko eta, are gehiago, maiatzeko datuetara ere hedatu da, azken hamar hilekoetako daturik onena izan zuelako. Inkestaren alderdi baikorrenen artean, eskari zorroak urtea hasi zenetik bizi duen etengabeko hobekuntza azpimarratu behar da. Ekoizpenaren joeraz eman dituzten erantzunak ere oso aldekoak dira eta lehen bost hilekoetako batez besteko datua 2000tik inoiz jaso den altuena da. Aldi berean, enpleguaren joeraz eman dituzten iritziaik baikorrak dira eta azken datua urte askoan lortutako altuena da. Aitzitik, saldu gabeko produktu amaituen stockaz aitortu dituzten usteek iradokitzen dute ondasun mota horiek hasi direla pilatzen.

Zerbitzuen multzoak %3,1eko gehikuntza lortu zuen balio erantsian, aurreko bi epealdietako emaitza berdinduz eta dagoeneko bi urte eta erdi iraun duen hazkunde egonkorreko irudia eskainiz, gorabehera batzuekin. Oso aldakuntza gutxi gertatu da sektorea osatzen duten hiru

jarduera taldeen erritmoetan. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen berriro izan zen dinamikoena, urte arteko tasan %3,7ko gehikuntza batekin, aurreko emaitza bi hamarrenetan gaindituz. Beste muturrean, arlo publikoari oso lotuta dauden adarrak %2,6 hazi ziren, 2016ko laugarren hiruhilekoan baino hamarren bakar bat gutxiago, baina azken hiru urteetan lortu dituzten gehikuntzetatik gehiegi aldendu gabe. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek ez zuten inolako aldakuntzarik izan eta %3,0ko urte arteko tasa bildu zuten, 2016ko bigarren erdian eskuratutako bera.

Zerbitzuetako koiuntura adierazleek sektorearen bilakaera ona 2017ko lehen hilekoetan baieztatzen dute. Esate baterako, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak %1,9ko gehikuntza izan zuen aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko bi emaitzak gaindituz. Estatistika horrek adierazten du bi osagai nagusiak, hots, merkataritza eta gainontzeko zerbitzuak, antzeko erritmoan hazi zirela. Lehen taldearen barruan, bat-bateko moteltzea hauteman zen ibilgailuen salmentan, %0,2 baino ez baitzen hazi, aurreko epealdietan %10 baino gehiago handitu zen bitartean. Aitzitik, handizkako merkataritzak bultzada garrantzitsua lortu zuen (%2,8). Gainontzeko zerbitzuen artean, turismoari lotuago daudenek aldakuntza tasa handiagoak eskuratu zituzten. Esate baterako, alojamenduko zerbitzuek %17,6ko gehikuntza tasa jaso zuten eta janari eta edari zerbitzuek, berriz, %5,4koa. Beste muturrean, lanbide jarduerak (%-1,0) eta administratiboek (%-1,6) behera egin zuten.

Eustaten estatistikak bezala, INEk osatzen duen zerbitzuen negozio zifrak ere sektorearen bilakaera ona seinatzen du 2017ko hastapenean. Zehazkiago adierazita, estatistika horrek %5,5eko gorakada jaso zuen lehen hiruhilekoan, 2015ean eta 2016an batez beste jasotako tasaren ginetik.


Aurreko hiruhilekoan gertatu zen bezala, 2017ko lehenean ere BPGaren hazkunde erritmoaren leuntzea ez zen lan merkatura hedatu, aurreko datua zertxobait hobetu zuelako. Hain zuzen ere, lanaldi osoko lanpostu baliokideak %2,0 areagotu ziren, 2007ko amaieratik inoiz jaso den urte arteko emaitzarik gorena baita. Gehikuntza tasa horrek esan nahi du azken hamabi hilekoetan 17.800 lanpostu garbi sortu direla eta EAEko ekonomiak dagoeneko 910.000 lanpostu dituela.

Enpleguaren sorrera sektoreka banatzen denean, agerian geratzen da hiru arlo nagusiek antzeko bizitasuna lortu dutela. Zehatz-mehatz adierazita, industriak eta eraikuntzak %1,8 areagotu zuten lanpostuen kopurua eta zerbitzuek, berriz, %2,1. Azken sektore horrek pisu handiagoa duenez, sortutako lanpostu guztietatik 13.500 zerbitzuetako jardueretan bildu ziren. Beste aldetik, industriaren eta eraikuntzaren ekarpena nabarmen apalagoa izan zen, hurrenez


hurren 3.300 eta 1.000 baino gutxiago sortu zituztelako. Azkenik, lehen arloaren ekarpena (%0,4) 50 lanpostukoa izan zen.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzza

Enpleguaren une gozoa dagoeneko igaro diren bigarren hiruhilekoko hilekoetara ere hedatu da, argitaratuta dauden Gizarte Segurantzaren apirileko eta maiatzeko afiliazioaren datuek iradokitzen dutenez. Izan ere, bihileko horren batez bestekoa %2,2an kokatu zen, aurreko emaitzak apur bat gaituz. Horrek pentsarazten du bigarren hiruhilekoko datua lehenengoaren oso antzekoa izango dela, edo agian zertxobait altuxeagoa. Estatistika horretan ere industriaren (%1,8) eta eraikuntzaren (%1,7) arteko antzekotasuna hautematen da eta baita zerbitzuen bizitasun handiagoa (%2,3) ere. Azken horien artean, protagonismo berezia daukate hezkuntzan (%6,7), higiezinaren jardueretan (%6,1) eta jarduera artistikoetan (%5,7) lortutako gorakadak. Beste muturrean, finantza eta aseguru jardueren langileen kopurua doitzeko prozesuarekin jarraitzen dute (%-4,9).

Moteltzen ari den BPG (%2,8) baten eta bizkortzen ari den enplegu (%2,0) baten konbinaketak lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia %0,8an utzi zuen, 2009ko amaieratik jaso den txikiena baita. Hala eta guztiz ere, ingurunekeo ekonomia nagusi batzuetan eskuratu dena baino handiagoa da datu hori. Esate baterako, Espainiako irabazia %0,5 izan zen eta Frantziarena %0,6, bietan aurreko balioak gaituta. Alemaniak, berriz, %1,4ko gehikuntza

lortu zuen, aurreko hiruhilekoan produktibitatea jaitsi eta gero. EAEko ekonomian, kontrajarriak dira zerbitzuetan lortutako produktibitate irabazia (%1,0) eta industrian jasotako emaitza hutsala (%0,2), beraren ohiko balioetatik (%2,1) urrun baitago.

## Barne eta kanpo eskaria

Hazkundearen osaerak, eskariaren ikuspegitik, ez du aldakuntzarik eskaintzen aurreko hiruhilekoetako egoeraren aldean eta berriro ere BPGari eginiko ekarpen guztia barne eskariaren eskutik iritsi zen, kanpo saldoak pare bat hamarren bakarrik kendu zituen bitartean. Kanpo saldoaren posizio neutro hori BPGa bizkor hazten ari den une batean ez dator bat krisiaren aurreko urteetan bizi zen egoerarekin, non ia etengabe barneko bizitasuna neurri batean konpentsatuta geratzen baitzen inportazioen gorakada garrantzitsu batekin. Horren ondorioz, ekarpen negatiboa izaten zen, urte batzuetan puntu batetik gorakoa izan zena. Gaur egun, barne eskariaren bultzadaren aurrean inportazioek ematen duten erantzun txikiagoa (elastikotasun txikiagoa) da EAEko ekonomiak azken hiruhilekoetan erakutsi duen inertzia ulertzen laguntzen duten faktoreetako bat.

Barne eskaria %2,9 handitu zen lehen hiruhilekoan, bi osagai nagusiek oso antzeko tasak eskuratu zituztela. Gertakari horrek baieztatzen du aurreko txostenetan azpimarratu zen kontsumoaren eta inbertsioaren arteko oreka. BPGari eginiko ekarpenaren terminoetan, %2,9ko hazkunde hori 3,0 puntuko ekarpena da, aurreko hiruhilekoan eginikoa berdinduz eta 2016ko batez bestekoan eginikoa baino hamarren bakar bat gutxiago. Beraz, BPGaren moteltze arina kanpo saldoaren aldetik iritsi da.

Familien kontsumoak oso bizitasun handia eskaini zuen berriro eta %3,0 areagotu zen erreferentziako epealdian, aurreko hiruhilekokoa hamarren bat gaindituz, baina 2016an eskuratutakoarekin bat eginez. Kontsumo pribatuaren intentsitatea hainbat faktoretan oinarritzen da, hala nola enpleguaren bilakaera onean, etorkizunerako aldeko igurikimenean, kreditua lortzeko erraztasun handiagoan, inflazioaren igurikimen oraindik apaletan eta aktiboen prezioen igoerak ekarri duen aberastasun efektu txikian. Administrazio publikoen kontsumoa, berriz, %2,5 hazi zen. Tasa hori, seguruenak, datozen hiruhilekoetan apalduko da eta defizita egokitzeko helburuarekin bateragarriak diren balioetan kokatuko da.

Kapital eraketa gordinak hiru hamarrenean leundu zuen gehikuntza erritmoa eta urte arteko aldakuntza tasa %2,9an kokatu zuen, oraindik oso esanguratsua den zenbakia delarik. Agregatu makroekonomiko horren barruan, joera kontrajarriak hauteman dira bi osagai nagusien artean.

Izan ere, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa nolabaiteko ahitzea hasi da erakusten bere hazkunde erritmo bizietan, gainontzeko inbertsioa urte arteko tasak finkatzen ari den bitartean, nahiz eta azken horiek nahiko apalak diren oraindik. Zehazkiago, ekipamenduan eginiko inbertsioa 2016ko lehen hiruhilekoan lortutako %10,7 hartatik 2017ko hiruhileko berean jasotako %4,9ra moteldu da. Apaltze horren zati bat lotuta dago ekipamendua berritzeko beharrari, krisian zaharkituak geratu zirelako, baina behar hori neurri handi batean beteta dago gaur egun eta, beraz, etorkizuneko gehikuntza ekoizteko ahalmenaren handitzeari lotuagoa egongo da. Gainontzeko inbertsioa %1,9 handitu zen, eraikuntzaren jarduera neurritsuak baldintzatzen baitu emaitza hori.

## ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	I
<b>BPG erreala</b>	<b>2,9</b>	<b>3,1</b>	<b>3,3</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>2,9</b>	<b>2,8</b>
Gastua azken kontsumoan	2,8	3,0	3,1	3,2	2,7	2,9	2,9
- Familien gastua kontsumoan	3,1	3,1	3,3	3,4	3,1	2,9	3,0
- Adminis. gastua kontsumoan	1,8	2,2	2,4	2,7	0,8	3,0	2,5
Kapital eraketa gordina	2,8	3,3	3,4	3,7	3,1	3,2	2,9
- Ekipamendu ondasunak	6,5	7,5	10,7	7,0	6,1	6,6	4,9
- Gainontzeko inbertsioa	1,2	1,4	0,2	2,2	1,6	1,6	1,9
Barne eskaria	2,8	3,0	3,1	3,3	2,7	3,0	2,9
Esportazioak	0,6	2,2	4,2	3,0	1,6	0,3	0,7
Inportazioak	0,6	2,2	3,9	3,2	1,3	0,4	0,9

Iturria: Eustat.

Inbertsiorako ondasunez eskura dagoen koiunturako informazioa bateragarria da agregatu horrek kontu ekonomikoetan erakutsi duen bizitasun txikiagoarekin. Izan ere, ondasun mota horren EAEko ekoizpenak, neurri batean bertan geratzen baita eta gainontzekoa kanpora baitoa, nabarmen gutxitu zuen erritmoa aurtengo lehen hilekoetan, hazkunde tasa %0,4an kokatu arte, apirilean jaitsiera txiki bat jasota. Hala eta guztiz ere, ekipamendurako ondasunen inportazioak, ia osorik hemengo merkaturakoa baita, ia ez du ezer nabaritu tonu galera hori eta %11,5 areagotu ziren. Datu esanguratsu hori oso hurbil dago 2016. urte osoan, batez beste, eskuratu zen emaitzatik (%12,3).



Atzerriarekin eginiko ondasun eta zerbitzuen salerosketak ahultasun garrantzitsua erakutsi zuen berriro 2017ko hastapenean, baina oraingo zenbakiak aurrekoak baino zertxobait positiboagoak dira. Zehazkiago, esportazioak %0,7 hazi ziren bolumenean eta inportazioen hazkundera %0,9ra iritsi zen. Bi kasuetan, aurreko hiruhilekoko emaitzak gainditu ziren. Aldagai horiek berek eurotan neurtuta, emaitza hauek izan zituzten: esportazioak %1,8 handitu ziren eta inportazioak, berriz, %1,6. Bai batzuek bai besteek atzean utzi zituzten jaitsierako bi hiruhileko jarraituak eta datuak baliaigarriak izan ziren esportazioen eta inportazioen salneurriak balio positibotara eramateko.

Kanpo merkataritzaren analisia atzerrian saldutako ondasunetara mugatzen bada, esportazioen hobekuntza baieztatuta geratzen da, urte arteko tasan %13,2 handitu zirelako. Zenbaki altu hori oso urrun dago aurreko zortzi hiruhilekoetan jaso ziren jaitsieretatik eta gehikuntza tasa txikietatik. Hala ere, 2017ko lehen hiruhilekoko datuak ezin dira aurreko urteko hiruhileko berean eskuratu zirenekin zuzenean alderatu, Aste Santuaren jaiak hileko ezberdinetan ospatu zirelako, egutegia baldintzatuz. Apirileko datuak ezagutu behar dira atzerriarekin eginiko merkataritza suspertu ote den ala ez ziurtatzeko.

Energiako eta energiaren bestelako ondasunen esportazioek antzeko aldakuntza tasak jaso zituzten. Lehen kasuan, balioaren gehikuntza %11,4ra iritsi zen eta bigarreanean, berriz, %13,4ra igo zen. Hala eta guztiz ere, esportatutako energia alorreko produktuen bolumena aurreko urtekoa baino askoz ere txikiagoa (%-17,1) izan zen, zeren eta Petronorrek hileko bat eta erdiz geldirik egon zelako, bere ekoizpena murriztuz. Beste aldetik, esportatutako bolumenaren eta produktu horien balioaren arteko aldeak adierazten du energiaren salneurria nabarmen igo zela epealdi horretan. Hain zuzen ere, petrolioaren upela %60 inguru garestitu zen 2016ko lehen hiruhilekoan zuen prezioaren aldean.

Energiaren bestelako esportazioen bilakaera positiboa izan zen produktu multzo guztietan, baina, beste hiruhileko batez, garraio materialaren salmentak lortu zuen bultzada bizia (%18,2) azpimarratu behar da. Orobat, nabarmentzekoa da metal arruntak eta beren manufakturrek lortutako gehikuntza (%17,9), zazpi hiruhilekoz jarraian beherakadak jaso ondoren. Hirugarren talde garrantzitsuenak ere, hots, makinak eta tresnak biltzen dituenak, irudi ona eskaini zuen hiruhilekoan, baina beraren hazkunde tasa (%6,5) besteena baino txikiagoa izan zen. Esportazioen egiturari pisu gutxien duten taldeek, oro har, balio esanguratsuak lortu zituzten, hala nola bestelako manufaktura %15,7 eta produktu kimikoen %11,5.

Atzerrian saldutakoaren gorakada berdin gauzatu zen herrialde garatuetara bidalitako esportazioetan (%12,0) eta garapen bidean dauden ekonomietarakoetan (%19,5). Bi blokeen arteko banaketan, herrialde aurreratuek guztizkoaren %82,1 bereganatu zuten eta besteek

gainontzeko %17,9. Beraz, lehen taldearen kontzentrazioa gehiago areagotu da, baina oraindik ez da iristen krisiaren aurrean zegoen ehunekora.

## ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2015	2016	2016			2017	
			II	III	IV	I	I
<b>GUZTIRA</b>	<b>-1,3</b>	<b>-1,6</b>	<b>0,3</b>	<b>-5,5</b>	<b>-3,5</b>	<b>13,2</b>	<b>5.792.082</b>
ELGE	1,6	1,0	3,6	-3,2	-3,1	12,0	4.753.674
Europar Batasuna	0,9	0,7	5,0	-3,7	-5,2	12,7	3.872.095
Frantzia	2,4	4,4	7,9	7,0	-4,2	11,3	916.550
Alemania	5,6	-1,4	3,4	-8,9	-6,8	7,1	918.900
Erresuma Batua	6,8	-9,4	-6,7	-17,0	-12,2	21,4	379.670
Italia	16,9	-9,0	-9,9	-4,3	-16,6	0,6	292.862
AEB	0,7	-10,5	-15,0	-28,3	-6,8	-5,1	364.331
ELGETik kanpokoak	-11,0	-11,8	-11,9	-14,1	-4,8	19,5	1.038.408

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Herrialde garatuen artean, Europako herrialdeetan saldutakoak gora egin zuen (%12,7), baina AEBetara bidalitakoak, ordea, behera (%-5,1), laugarren hiruhilekoz jarraian. Herrialde horretara bidaltzen diren EAEko esportazioak neurri handi batean energia alorreko produktuak izaten dira, salmenta guztietatik erdia izatera iritsi baita une batzuetan. Halere, azken lau hiruhilekoetan osagai horrek pisua galdu du eta gaur egun esportazio guztien %27 besterik ez da. Aitzitik, galdaketa manufakturrek eta makinaria mota jakin batzuek pisua irabazi dute herrialde horretan. Japoniari dagokionez (%17,2), herrialdean saldutako guztiaren erdia ibilgailu automobilak dira, baina gorakada handia hauteman da aluminio eta beraren manufakturen esportazioetan.

Europako helburuen artean, Frantzia eta Alemania lehiatzen dira buruan egoteko, bakoitzak erositako balioaren artean alde handirik ez dagoela. Aurreko hiruhilekoan izan zuten jaitsieraren ondoren, bi herrialdeek areagotu dituzte EAEko produktuen erosketa, bereziki Alemaniak, %11,3ko gehikuntza lortu baitzuen. Herrialde horrekin dagoen merkataritza harremana oso lotuta dago ibilgailu automobilen ekoizpenari, esportatutako guztiaren erdia baino gehiago biltzen duelako, %18,4ko gehikuntza eskuratuta. Pisu nabarmena duten gainontzeko atalek ere (kautxua, galdaketa manufaktura eta makineria) urte arteko aldakuntza positiboak izan zituzten epealdi horretan.

Frantziari dagokionez (%7,1), ibilgailuek pisu garrantzitsua dute (herrialde horretara esportatutako guztiaren %22,5), baina urrun dago Alemanian duten pisutik. Multzo hori %5,4 handitu zen, baina esportazioetan pisua duten gainontzeko taldeek gehikuntza tasa handiagoak lortu zituzten. Izan ere, erregai mineralak %12,3 gehiago saldu ziren eta galdaketa manufakturak, berriz, %36,3. Ibilgailuek toki nabarmena lortu zuten Erresuma Batura bidalitako esportazioetan ere (guztizkoaren %35,7) eta oso portaera ona (%26,1) izan zuten, herrialde horretara saldutako guztizkoa %21,4 handitzea ahalbidetu zuena. Italia bizitasun orokor horretatik kanpo geratu zen, EAEko produktuen erosketak %0,6 bakarrik areagotu zuelako. Hala eta guztiz ere, gehikuntza tasa hutsal hori aurrerakada bat da aurreko hiruhilekoetan jaso ziren etengabeko beherakaden aldean.

Garapen bidean dauden herrialdeen multzoak %19,5 handitu zituen erosketak eta eremu horretako ekonomia garrantzitsuenetako batzuetan bilakaera oso esanguratsua izan zen. Esate baterako, Brasilerako esportatutakoa %41,7 areagotu zen, erregai mineralen ezohiko salmenta bati eta aeronautikako materialaren salmenta handiagoari (%36,4) esker. Errusiara %51,2 gehiago esportatu zen, neurri handi batean ibilgailu automobilak izan zirela. EAEko ekonomiarentzat garrantzitsuak diren beste merkatu batzuek ere gehikuntza azpimarragarriak lortu zituzten 2017ko hastapenean. Beraien artean, Turkia (%21,3), Maroko (%30,0) eta India (%12,8) nabarmendu behar dira. Hala ere, Txinak, EAEko produktuentzat oraindik merkatu nagusia baita garapen bidean dauden herrialdeen artean, %3,7 bakarrik areagotu zituen erosketak, lau hiruhilekoz jarraian hedatze bizia jaso ondoren. Makineriaren salmentak portaera ona eduki zuen arren, galdaketa manufakturen jaitsierak azaltzen du moteltze hori.

Inportazioen portaera esportazioena baino are biziagoa izan zen, baina diferentzia energia alorreko produktuen erosketak markatu zuen. Zehatz-mehatz azalduta, inportatutako guztia %34,9 hazi zen, baina energiaz bestelako inportazioak %14,7 handitu ziren. Azken datu hori ez da asko aldentzen energiaz bestelako esportazioek lortutako %13,4 hartatik. Erregai mineralen erosketak (%130,6) lotuta dago lehenago aipatu den Petronor enpresaren urtarrileko eta otsaileko itxierarekin, tokiko merkatua hornitzeko kanpora ateratzera behartu zuelako. Oro har, atal nagusi guztiek gehikuntza tasak eskuratu zituzten epealdi horretan, salbuespen bakarra papera (%-5,4) izan zelarik.

EAEko enpresek herrialde garatuetan pilatu zituzten erosketak eta hauek %42,9 areagotu ziren, neurri handi batean erregaiak kanpoan erosi behar izan zirelako epe jakin batean, nagusiki Erresuma Batuan. Herrialde hori berriro izan zen erregaien hornitzaile nagusia, Errusiaren aurretik. Beste aldetik, garapen bidean dauden herrialdeetatik ekarritako inportazioak %18,2 areagotu ziren, herrialde horietan saldutakoaren igoeratik (%19,5) oso hurbil dagoen zenbakia baita.

**INPORTAZIOEN JATORRIA**

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2015	2016	2016			2017	
			II	III	IV	I	I
<b>GUZTIRA</b>	<b>-3,0</b>	<b>-8,0</b>	<b>-9,5</b>	<b>-14,4</b>	<b>0,1</b>	<b>34,9</b>	<b>4.768.389</b>
ELGE	2,7	-7,7	-1,1	-18,1	-1,8	42,9	3.402.449
Europar Batasuna	5,5	-8,1	-5,0	-16,2	-6,6	36,5	2.899.720
Frantzia	20,6	9,5	9,8	8,5	0,1	13,3	716.775
Alemania	11,7	-8,9	-5,6	-9,0	-8,9	14,4	448.270
Erresuma Batua	15,1	-51,7	-38,6	-78,9	-32,0	535,1	614.673
Italia	3,5	3,5	13,1	4,2	-1,1	18,2	221.934
AEB	2,9	-3,9	63,4	-30,6	14,1	37,0	96.862
ELGETik kanpokoak	-14,4	-8,5	-27,0	-5,6	5,3	18,2	1.365.940

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Euroguneko herrialdeetatik ekarritako inportazioak antzeko portzentajeaz hazi ziren ekonomia nagusietan. Izan ere, Alemanian %13,3 gehiago erosi zen, Frantzian, berriz, %14,4 eta Italian %18,2, guztiak zenbaki garrantzitsuak direla. Hiru herrialdeen ezaugarri komuna da hirurek makineria hornitzaileak direla EAEko enpresentzat. Hala ere, Alemaniatik ibilgailuen kopuru garrantzitsu bat ere inportatzen da eta Frantziatik zein Italiatik galdaketa produktuak. Beste aldetik, AEBetako inportazioek (%37,0) erregai mineraletan oinarritzen dira neurri handi batean eta oso nabarmen areagotu ziren. Orobat, farmaziako produktuak, nikela eta bere manufakturak eta makineria ere erosten dira herrialde horretan.

Garapen bidean dauden herrialdeetan eginiko erosketak %18,2 handitu ziren lehen hiruhilekoan. Ere horretan, oso deigarria da hornitzaile nagusiak, hots, Txinak, merkatu kuota berriro galdu duela egiaztatzea. Epealdi horretan, urte arteko aldakuntza tasa %-9,3 izan zen eta dagoeneko bost hiruhileko kateatu ditu jaisten. Aitzitik, Errusiak bere egoera sendotu du %3,9ko hazkunde batekin, erregaien salmentan fokatuta, eta Txinaren mailatik oso hurbil dago gaur egun. Brasilek ere bere erregistroak hobetu ditu (%17,6), baina herrialde horren pisua EAera datozen inportazioen egituran aipatu diren herrialde horien baino askoz ere txikiagoa da. Erregaiak inportatzeko beharra mesedegarria izan da Mexiko, Nigeria eta Saudi Arabiarentzat ere, oso gehikuntza tasa nabarmenak eskuratu zituztelako eta EAEko inportazioen artean pisua irabazi dutelako.

Esportazioen eta inportazioen konbinaketak 1.024 milioi euroko merkataritza saldoa utzi du atzerriarekin, EAEko ekonomiaren aldekoa. Zenbaki hori garrantzitsua da, baina 2014ko amaieratik jaso den txikiena da. Energiatz bestelako saldoa 2.052 milioi eurora igo zen, azken bi urteko kopururik handienetako bat delarik. Hala ere, emaitza on hori energiako saldo handiagoak konpentsatu zuen, negatiboa izaten baita eta 1.028 milioi euroko defizitera iritsi baitzen. Petrolioaren salneurria balio txikietatik nabarmen igo izana eta Petronor enpresaren geldialdia hileko bat erdiz ordezkatzeko beharra dira energiako saldoaren defizit handiagoa azaltzen duten arrazoietakoz batzuk. Aurreko txostenetan adierazi zenez, merkataritza superabita herrialde garatuekin egiten diren salerosketetan lortzen da, garapen bidean dauden herrialdeekiko merkataritzak saldo negatiboa uzten duen bitartean, batez ere Errusiarekin eta Txinarekin.

## **Prezioak, soldata eta kostuak**

2017ko lehen hilekoetan, prezioak aztertzen dituzten adierazleek goranzko joera orokorra erakutsi zuten. Analisia BPGaren deflatorearekin hasita, adierazi behar da 2016ko bigarren hiruhilekoan hasi zen igoerak jarraipena izan duela aurtengo lehen hilekoetan ere, neurri handi batean inportazioen deflatoreak ezagutu duen bizkortzearengatik, petrolio gordinak eta beste lehengai batzuek nazioarteko merkatuetan izan duten garestitzearen ondorioz. Orobat, barne eskariaren prezioak ere handitu ziren, nahiz eta bizkortze hori txikiagoa izan zen. Dena dela, prezioen gorakada hori une jakin batean bakarrik gertatu zen eta bigarren hiruhilekorako dagoeneko ezagutzen diren datuek moteltzeko joera erakusten dute.

Kontsumoko prezioei dagokienez, inflazioaren aurreko jaitsieren ondoren, urte hasieran gorakada nabarmena izan zuten, argindarraren salneurria garestitu zelako eta petrolioaren prezio altuagoa merke zegoen une batekin alderatzen delako. Halere, inflazioaren bizkortze hori apaldu zen martxotik aurrera, energia osagaiaren eragina desagertu zen neurrian, Aste Santuaren egutegiak apirilean beheranzko joera hori denbora labur batez gelditu bazuen ere. Pentsatzekoa da datozen hilekoetan desagertuko direla aldi baterako efektu horiek eta inflazioa balio apaletara itzuliko dela. Horixe da, hain zuzen ere, maiatzeko datuak iradokitzen duena, kontsumo prezioen indizearen urte arteko tasa %2,0an kokatu zuelako, hots, urtarrilean eta otsailean zegoena baino bederatzi hamarren beherago.

Berriro ere, petrolioaren prezioak 2016an zehar erakutsi zuen bilakaerak azaltzen du, neurri handi batean, KPI orokorrak izan zuten gehikuntza 2017ko lehen hilekoetan. Izan ere, petrolio gordinaren salneurriak nabarmen igo zen epealdi horretan, LPEEko eta erakunde horretakoak ez diren beste herrialde batzuek eskaintza murrizteko akordioa sinatu ondoren. Hala eta guztiz ere,

goranzko efektu horrek ez zuen luzaz iraun eta martxoko lehen asteetan petrolioaren salneurriak beherantz egin zuen berriro, hileko horretako inflazioan islatu zena. Ekoizpena murriztu bazen ere, lehengai horren prezioa oraindik 50 dolarren inguruan dago, neurri batean murrizketa hori AEBetako eta beste herrialde batzuetako ez-ohiko petrolioaren ekoizpenak konpentsatu duelako eta, beste neurri batean, LPEEko herrialdeen esportazioek bere horretan jarraitu dutelako.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2016		2017		Ekarpena
			IV	I	Maiatza		
<b>Inflazio osoa (100%)</b>	<b>-0,3</b>	<b>0,0</b>	<b>1,0</b>	<b>2,7</b>	<b>2,0</b>	<b>2,0</b>	
<b>Azpiko inflazioa (81,8%)</b>	<b>0,7</b>	<b>0,9</b>	<b>0,9</b>	<b>1,0</b>	<b>1,0</b>	<b>0,8</b>	
- Elikagai landuak (14,3%)	1,1	0,9	0,0	-0,5	-0,4	-0,1	
- Industria ondasunak (24,5%)	0,3	0,8	0,9	1,1	0,4	0,1	
- Zerbitzuak (43,1%)	0,8	1,1	1,2	1,3	1,8	0,8	
<b>Hondar inflazioa (18,2%)</b>	<b>-4,5</b>	<b>-4,2</b>	<b>1,5</b>	<b>11,0</b>	<b>7,0</b>	<b>1,2</b>	
- Landu gabeko elikagaiak (7,8%)	1,9	2,6	1,5	4,9	4,3	0,3	
- Energia (10,4%)	-8,4	-8,2	1,5	15,2	8,5	0,9	

Iturria: INE.

Orobat, energiaz bestelako lehengaien prezioak, aurreko hilekoetako garestitzearen ondoren, martxotik aurrera jaisten hasi ziren. Neurri handi batean, Txinaren portaerak eragin zuen jaitsiera hori, herrialde horrek altzairuaren eskaria murriztu zuelako azken hilekoetan, izakin asko pilatuak zituelako.

EAEn bezala, Eurogunean ere inflazioa areagotu zen aurtengo lehen hilekoetan, baina gutxiago. Beraz, bi lurraldeen arteko diferentziala kontsumo prezioetan puntu batekoa izan arte zabaldu zen urtarrilean eta otsailean, ondorengo hilekoetan sei hamarrenetara murriztu bazen ere. Diferentzialaren aldakuntza oso lotuta dago petrolioaren prezioak izaten dituen gorabehereri, eragin handiagoa izaten baitu EAEko ekonomian, erosketen saskian pisu handiagoa duelako eta lehengai horren gaineko zergek osagai aldakor handiagoa dutelako EAEn, prezioaren aurrean gorabehera handiagoak ekarriz.

Beste aldetik, azpiko inflazioak, energiaren osagaia ez baitu kontuan hartzen, ia ez zuen aldakuntzarik jaso aurtengo lehen bost hilekoetan eta %1,0aren inguruan mantendu zen, berehala zuzendu ziren munta txikiko gorabehera batzuekin bakarrik. Izan ere, azpiko inflazioaren taldeek balio apaletan jarraitu zuten, nahiz eta zerbitzuek goranzko joera arina erakutsi zuten apirilean eta maiatzean, neurri batean turismoak bizi duen une gozoari esker, turismoko paketeen prezio altuagoetan islatzen dutenez. Azpiko inflazioa osatzen duten gainontzeko taldeek, hala landutako elikagaiek (%-0,4) nola industriako ondasunek (%0,4), ez zuten inolako presiorik nabaritu beren salneurrietan eta urte arteko tasa oso txikietan jarraitu zuten.

Aldi berean, hondar inflazioak hazkunde tasa esanguratsuak jaso zituen oraindik, baina gehikuntza erritmoa gutxitu zuen, zeren eta landu gabeko elikagaiek eta energiak gorakadak apaldu zituztelako. Energia alorreko produktu horien portaerak erregaien garestitzea islatu zuen, baina baita argindarraren eta gasaren prezioek izan zuten igoera ere. Gorakada horiek biziagoak izan ziren urtarrilean eta, lehenago adierazi denez, hilekoak aurrera joan ziren heinean igoerak apaldu ziren.

### EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016			2017	
			II	III	IV	I	Maiatza
<b>Indize orokorra</b>	<b>-0,3</b>	<b>0,0</b>	<b>-0,6</b>	<b>0,0</b>	<b>1,0</b>	<b>2,7</b>	<b>2,0</b>
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,4	1,6	2,0	1,5	0,5	1,3	1,1
Edari alkoholduak eta tabakoa	0,9	0,4	0,3	0,3	0,5	1,6	1,7
Jantziak eta oinetakoak	0,4	0,8	0,8	0,9	0,9	0,9	0,8
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-1,7	-4,1	-6,3	-4,3	-0,3	5,7	5,3
Etxeko hornidura	0,0	0,5	0,4	0,9	0,8	0,4	-0,3
Medikuntza	0,1	1,0	1,0	1,2	0,7	1,4	1,5
Garraioa	-4,1	-1,8	-4,2	-1,7	2,6	7,4	3,4
Komunikazioak	-1,7	2,6	2,4	2,5	3,2	2,0	2,1
Aisia eta kultura	-0,2	-1,0	-2,3	-0,7	-0,8	1,4	2,1
Irakaskuntza	2,2	0,6	0,5	0,5	1,0	1,5	1,6
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,3	1,0	1,1	0,6	1,2	1,1	2,1
Besteak	1,7	1,7	1,5	1,7	1,9	1,4	0,7

Iturria: INE.



Beste behin ere, eta aurreko epealdietan gertatu zen bezala, energiak ez zuten protagonismoa galdu prezioen goranzko joeran eta horren ondorioz urte arteko aldakuntza tasa handienak garraioan (%3,4) eta etxebizitzan (%5,3) jaso ziren. Hori horrela izanda, bi talde horiek nahiko aldendu ziren gainontzeko taldeen bilakaeratik. Lehenengoa erregaiak garestitu zirelako eta bigarrena gasaren eta argindarraren gehikuntzarengatik. Aipatu diren bi talde horiez gain, komunikazioek eta turismoarekin lotura estua dutenek (jatetxeak eta hotelak, eta aisia eta kultura) ere Europako Banku Zentralak ezarri zuen erreferentzia gainditu zuten, hirurek %2,1eko gehikuntza eskuratuta.

Inflazio orokorra bezala, IPRI indizeak (%4,4) ere goranzko presio inflaziogileak erakutsi zituen, bereziki, energiaren salneurrien bilakaerarengatik (%16,2). Beste aldetik, bitarteko ondasunek (%3,0) eta ekipo ondasunek (%2,0) bilakaera motelagoa erakutsi zuten. Azkenik, kontsumorako ondasunen salneurriak gora egin zuen, baina aldakuntza tasak oso txikiak izan ziren (%0,8).

Amaitzeko, soldaten hazkundera, hitzarmen kolektiboen arabera, zertxobait hazi zen, baina igoera txikia da oraindik, neurri handi batean azken urteetako inflazio apalak horretarako bide ematen duelako. Kontuan hartuta 2017an igaro diren hileko apurrak, lan hitzarmena indarrean daukaten langile gehienek urte batzuetarako sinatuta zeukaten aurretik eta beraietan aurreko inflazioaren igoera indexatzeko mekanismoak egoten dira. Hala eta guztiz ere, sinadura berriko hitzarmenek ere igoera apalak izan zituzten, tarifen batez besteko gehikuntza indarrean dauden hitzarmenetatik hamarren bat beherago kokatuz (%1,5 eta %1,6, hurrenez hurren). Sektore mailako eta enpresetan sinatutako artean ere ez da alde handirik hautematen adostutako igoeran.

#### HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,3	0,7	0,6	1,0	1,6
- Urtean zehar sinatutakoak	1,0	0,5	0,8	1,2	1,5
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,3	0,8	0,6	1,0	1,6
- Enpresako hitzarmenak	1,2	0,6	0,6	1,2	1,6

(\*) 2017ko apirila arte erregistratutako hitzarmenak.  
Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

## Aurreikuspenak

Munduko ekonomiarentzat egin diren hazkunde aurreikuspenak gorantz berrikusi dira azken hilekoetan, azken urteetan egin diren beheranzko zuzenketen joerarekin nabarmen apurtuz. Ekonomia globalaren hazkundera orokorra izango da eta ezberdintasunak zuzenduko dira, nahiz eta abiadura ezberdinetan gauzatu den. Consensus Forecasts-ek maiatzean argitaratu zituen aurreikuspenek %2,9an kokatzen dute munduko ekonomiaren hazkunde tasa 2017rako eta %3,0, berriz, 2018rako, bi zenbaki horiek kalkulatzeko orduan herrialdearen pisua erosteko ahalmen parekatua kontuan hartu gabe dagoela.

### EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2016	2017	2018	2016	2017	2018
Munduko ekonomia	2,5	2,9	3,0	2,5	3,1	2,9
AEB	1,6	2,1	2,4	1,3	2,4	2,2
Kanada	1,4	2,4	1,9	1,4	2,0	2,0
Japonia	1,0	1,4	1,1	-0,1	0,7	1,0
Eurogunea	1,7	1,7	1,6	0,2	1,6	1,4
Europar Batasuna	1,8	1,6	1,6	0,3	1,7	1,7
Alemania	1,9	1,6	1,6	0,5	1,8	1,7
Espainia	3,2	2,7	2,3	-0,2	2,1	1,5
Frantzia	1,1	1,4	1,5	0,2	1,3	1,3
Herbehereak	2,2	2,2	1,8	0,3	1,6	1,6
Italia	0,9	0,9	0,9	-0,1	1,4	1,3
Erresuma Batua	1,8	1,7	1,4	0,7	2,6	2,7
Asia eta Ozeano Barea	4,7	4,8	4,6	1,7	2,2	2,3
Ekialdeko Europa	1,7	2,4	2,6	4,7	5,2	4,7
Amerika Latinoa	-0,6	1,6	2,6	13,8	11,2	9,5

Iturria: Consensus Forecasts (2017ko maiatza).

Beheranzko arriskuak aurreko hiruhilekoetan zeudenen aldean murriztu badira ere, oraingo eszenategi makroekonomikoaren gainean oraindik badaude mehatxu garrantzitsuak epe laburreko bilakaera baldintzatu dezaketenak. Alde batetik, ekonomia aurreratuetan mesfidantzako testuingurua sortu da kooperazio aldeaniztunean eta politika protekzionistak babesten dira. Trump gobernuaren etorkizun politikoari buruz dagoen ziurgabetasunak ere zalantzak sortzen ditu ekonomiaren aurreikuspenetan. Orobat, Europan, Brexitaren

etorkizuneko ondorioek eta sentimendu europeistaren galerak hainbat zalantza piztu dituzte ekonomiaren testuinguruan. Beste aldetik, azaleratzen ari diren eta garapen bidean dauden ekonomien bilakaera, beste faktore batzuen artean, Txinako hazkunde ereduaren aldakuntzak eta petrolioaren prezioen joerak baldintzatuko dute.

Consensus Forecasts-en arabera, estatubatuar ekonomia %2,1 hazi zen 2017an eta %2,4ra bizkortuko da 2018an. Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), berriz, hazkunde aurreikuspenak, hurrenez hurren, %2,3an eta %2,5ean kokatu ditu 2017rako eta 2018rako. Kalkulatu dituen tasa horiek zerga pizgarrietan oinarritutako dinamismo handiago batean kokatzen dira. Azpiegituretan eginiko inbertsio planek eta zergen murrizketek bat egingo dute langabeziaren beherakada nabarmenarekin eta familien kontsumoak bizi duen bultzada sendoarekin. Txanponaren ifrentzuan altuagoak izango diren interes tasak eta balioa irabazi duen dolar batek eta Trumpen gobernuak ezarriko dituen politika protekzionistek kanpo arloan eragin dezaketen narriadura egongo dira.

Eurogunean, ekonomia hazkunde neurritsua aurreikusten da kontuan hartu den denborarako. Consensus Forecasts-ek eremu horretarako argitaratu dituen azken aurreikuspenek %1,7ko hazkundera ezarri dute 2017rako eta %1,6, berriz, 2018rako. Hazkunde aurreikuspen berberak aurkeztu zituen NDFk ere urte horietarako. Hazkunde neurritsuko joera hori hainbat faktorek indartuko dute, hala nola zerga politikak, finantzaziorako baldintza onek eta nahiko ahula den euro batek. Hazkunderaren motorra barne eskaria izango da oraindik, ekonomia eragileen konfiantza handiagoak, bai familienak bai enpresarietak, bultzatuta. Erakunde horiek Europarako zenbatetsi duten eszenategi makroekonomikoan beheranzko arrisku batzuk daude, esate baterako herrialde batzuetan egingo diren hauteskundearen emaitzak, terrorismoaren mehatxua eta Brexita.

Espainiarako batez besteko iritziak ekonomia hazkunderaren mailakako moteltzea seinalatzen du, nahiz eta herrialde horretarako aurreikuspena gorantz zuzendu den azken eguneraketetan. Berrikusketa positibo orokorra eta mailakatua egin da 2017rako eta 2018rako azken hilekoetan. Consensus Forecasts-ek %2,7ko aldakuntza tasa zenbatetsi du 2017rako eta hazkundera %2,3ra motelduko da 2018an. Beste aldetik, CEPREDEk kalkulu baikorrak eskaini ditu 2017rako %2,8ko gorakada eta 2018rako %2,6ko gehikuntza iragarri dituenean. Barne produktu gordinak izango duen hazkunderaren motor bultzagilea barne eskaria izango da, enpleguaren gorakadak, finantzaziorako kostu apalek eta jarduera globalean bizi den dinamismo orokorrak lagunduta. Aurreikuspen horretan, kanpo saldoak oraingoa baino paper motelagoa jokatuko du, batez ere 2018an.

**ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2017ko maiatza)**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017			2017	2018
	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>2,8</b>	<b>2,7</b>	<b>2,7</b>	<b>2,8</b>	<b>2,6</b>
Kontsumo pribatua	2,8	2,8	2,6	2,7	2,3
Kontsumo publikoa	0,8	1,6	1,9	1,0	1,4
Kap. finkoaren eraketa gordina	2,7	4,0	4,7	3,5	4,5
- Inbertsioa ekipamenduan	3,4	5,7	7,7	5,1	5,5
- Inbertsioa landutako aktibotan	-3,2	-2,2	0,3	-1,9	3,6
- Inbertsioa eraikuntzan	2,5	3,2	3,5	2,8	4,3
Barne eskaria	2,4	2,7	2,8	2,5	2,6
Esportazioak	5,1	5,5	5,6	5,3	5,0
Inportazioak	4,3	5,7	6,2	4,8	5,4

Iturria: CEPREDE.

Lan merkatuaren aldagaien aurreikuspenek hobekuntza erakusten dute enpleguaren hazkundean bi urteetan. CEPREDEk lanaldi osoko lanpostu baliokideen 2017rako zenbatespena %2,3an kokatu du. Datorren urterako, gehikuntza %2,1era mugatuko dela aurreikusten da. Beste aldetik, langabezia tasa beherantz zuzendu da eta aurreko %17,4ra iritsiko dela espero da, 2018an %15,6ra jaitsiko den bitartean.


Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAerako ekonomia aurreikuspenak eguneratu ditu, ingurune makroekonomikoaz eta EAEko ekonomiaren berezko adierazleez eskura dagoen azken informazioa erabiliz. Hain zuzen ere, etorkizuneko aurreikuspenen eguneraketak goranzko zuzenketa bat ekarri du kontuan hartu den denboraldi osorako. Esate baterako, 2017rako espero den batez besteko hazkunde tasa %2,7an kokatu da eta gehikuntza zertxobait apalduko da 2018an, %2,3era iritsi arte.

Jarraian dauden irudietan ikus daitekeenez, EAEko ekonomiaren inertziak goranzko zuzenketa ekarri ditu eszenategi makroekonomiko honetan barnean hartzen diren bi urteetarako aurreikusi diren hazkunde tasan. 2017. urtearen kasuan, lehen emaitzek iradokitzen zuten BPGaren gehikuntza tasa %2,2aren inguruan egongo zela, baina gaur eguneko informazioak emaitza hori dagoeneko aipatua izan den %2,7ra gorarazi du. 2018rako, aurreikuspen ariketa gutxi egin dira oraingoz, baina goranzko zuzenketa txiki bat egin da dagoeneko.

### Aurreikuspenen berrikusketa Urte arteko aldakuntza tasak

2017 urtea

2018 urtea



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Zuzenketa horiek ez dute aldaketarik ekarri aurreikuspenaren funtsezko lerroetan. Izan ere, oraindik uste da barne eskaria izango dela EAEko ekonomiaren hazkundearen bultzagile nagusia. Agregatu horrek 2,7 puntu ekarriko dizkio BPGaren hazkunderari 2017an eta 2,5 puntu, berriz, 2018an. Familiek kontsumoan egingo duten gastuaren bizitasuna errenta erabilgarriaren gehikuntzan, lan merkatuaren hobekuntzan, prezioen igoera txikian eta kontsumitzaileen artean dagoen baikortasuneko testuinguruan oinarrituko da. Beste aldetik, kapitaleko eraketa gordinak hazkunde tasa oso esanguratsuak aurkeztuko ditu, interes tasa apalek, balioa galdu duen diru batek eta ekonomia testuinguru dinamikoago batean enpresarien igurikimen hobeei lagunduta. Kontuan hartu den epealdian, eszenategi makroekonomiko berrian barne eskariaren ekarpenak joera egonkorra erakutsiko du eta kanpo eskariak ekarpen hutsala egingo dio BPGari 2017an eta zertxobait negatiboa, berriz, 2018an.

Eskaintzari dagokionez, hazkunde orokorrak aurreikusten dira ekoizpen sektore guztietan, salbuespen bakarra lehen arloko jarduera delarik, gorabehera handiak izaten baititu bere bilakaeran. Nekazaritza eta arrantza biltzen dituen sektore horrek narriadura ezagutuko du kontuan hartu diren bi urteetan. Beste aldetik, industriaren aldakuntza tasa %2,5ean kokatuko da 2017an eta %2,7an, berriz, 2018an. Eraikuntzak hazkunde positiboak berreskuratu ditu eta aurreikuspen berriek hazkunde iraunkorra eta egonkorra iradokitzen dute datozen hiruhilabetekoetarako. Zerbitzuek ere bizitasuna eta hazkundearen finkapena erakutsiko dute. Hori horrela izanda, sektore horren batez besteko tasa %2,9ra iritsiko da 2017an. Hurrengo urtean

zertxobait apalduko da eta %2,4an kokatuko da urteko batez bestekoan. Sektoreka eginiko analisi honetan ondorioztatzen denez, hazkundearen oinarriak industria eta zerbitzuak izango dira berriro. Bi sektore horiek egingo diote ekarpen handiena EAEko balio erantsi gordinaren hazkundeari.

#### EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2017ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017			2017	2018
	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>2,7</b>	<b>2,6</b>	<b>2,6</b>	<b>2,7</b>	<b>2,3</b>
Azken kontsumoa	2,5	2,4	2,3	2,5	2,2
Kontsumo pribatua	2,8	2,6	2,6	2,7	2,3
Kontsumo publikoa	1,4	1,4	1,5	1,7	1,8
Kapital eraketa gordina	2,9	3,0	3,3	3,0	3,2
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,6	2,5	2,7	2,5
Kanpo saldoaren ekarpena	0,0	0,0	0,1	0,0	-0,2
Lehen arloa	-6,3	-7,8	-6,0	-4,4	-10,2
Industria eta energia	2,6	2,5	2,7	2,5	2,7
Eraikuntza	1,9	2,0	2,2	2,0	1,6
Zerbitzuak	2,9	2,9	2,8	2,9	2,4
Balio erantsi gordina	2,7	2,7	2,7	2,7	2,4
Ekoizkinen gaineko zergak	2,8	2,6	2,5	2,7	2,0
BPGaren deflatoarea	1,2	1,4	1,4	1,2	1,8
Enplegua	1,9	1,9	1,7	1,9	1,5
Langabezia tasa	11,3	11,1	10,9	11,2	10,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Aurreikusi den ekonomia hazkundeak eragin positiboa izango du lan merkatuan, enplegua areagotuko delako eta langabezia tasa murriztuko delako. Enpleguaren gehikuntza %1,9 izango da 2017an eta %1,5era jaitziko da datorren urtean. Datu horiek esan nahi dute 16.600 lanpostu inguru sortuko direla aurtan eta 13.400 inguru 2018an, gutxi gorabehera. Beste aldetik, langabezia tasa %11,2an kokatuko da 2017an eta %10,7ra jaitziko da 2018an, urteko batez bestekoan neurtuta.